

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak milioi bateko laguntza eman die 12 ETE garatzen ari diren 5,2 milioi euroko inbertsioei

Sozietate horiek beren langile kopurua % 12 eta fakturazioa % 34 handitu dute proiektuak abian jarri zirenetik

Miércoles, 24 de abril de 2013

Nafarroako Gobernuak 1,06 milioi euro emango die 5,2 milioi euroko hamabi inbertsio amaituta edo amaitzear dituzten hamabi ETEri. Laguntza hori inbertsio guztiaren % 17 eta % 30 artean dago.

Beren inbertsio-proiektua amaituta edo amaitzear duten industria-izaerako enpresak dira eta, beraz, badaude aberastasuna sortzeko daturik. Zehazki, 19 lanpostu sortu dira, hau da, % 12 igo da inbertsioak hasi aurretik lanean zeuden 157 pertsonarekin alderatuz. Gainera, 2012ko datuekin, enpresa horiek beren fakturazioa % 34 handitu dute, 25,1 milioi eurora iritsi dira.

Honako [enpresa](#) hauek dira; Bolsas Osés SL; Gráficas Alzate SL; Kalpe Calderería Pesada SL.; Lantec 2000 Sistemas SL; Makinaria Ormazabal SL; Neumáticos Iruña SL; Talleres Goldebi SL; Talleres Onena SL; Transformados Mayo SL; Mikel Mutuberria Zurgindegia SL; Adrián Arriazu Carcavilla; eta Miguel Ángel Fernández Jausoro.

Proiektu guztiak ETEek sustatu dituzte (% 58 enpresa txikiak dira, 10 langile baino gutxiagorekin), haietako bat sortu berria, eta enpresa horiek zailtasun handiagoak dituzte finantzaketa lortzeko. Lau Iruñerrian daude; hiru Sakanan; bi Baztan-Bidasoan; bi Estellerian; eta bat Erriberan. Nafarroako Gobernuaren arabera, Nafarroako ekonomiarentzako proiektu dinamiko eta interesgarriak dira.

Inbertsiorako laguntzak

Inbertsiorako laguntzak industria-sektoretan eta industria-zerbitzuetan oinarrituta daude, eskualdeko ekonomiaren traktore nagusia. Industria Nafarroako BEGaren % 30 da eta enpleguaren % 25 eta bertan oinarritzen dira esportazioen % 80; beraz, kanpoko baliabideak lortzeko iturri nagusia da.